



"Nire ahizpa zaharren liburuak irakurtzen nituen"

Raquel, Ainara, Chej

Nerea Balda Altsasu BHiko irakaslearekin hitz egin dugu bere idazle lanari buruz gehiago jakiteko.

Idazteko edo irakurtzeko maniarik bai?

Gustuko dut infusioren bat edo kafesnea hartzea idatzi edo irakurtzen dudan bitartean.

Eta zure leku eta unerik gogokoena hori egiteko?

Eguraldi ona dagoenean, etxeko balkoian eguzkitan, bai irakurri eta bai idatzi, eta bestela sofán eserita manta azpian, etxean bakarrik nagoenean.

Nola eragiten du idazle izateak zure irakasle lanean?

Beno, ni batez ere irakaslea naiz, idaztea nire denbora pasa da, eta irakasle lanak uzten didanean idazten dut. Bestalde, nire klaseetan literaturari garrantzia ematen diot, nire ustez, oso interesgarria delako.

Blokeorik izan duzu?

Askotan izaten ditut blokeoak, orduan, mendian ibiltzera joaten naiz eta ideiak errazago etortzen zaizkit.

Zein izan zen irakurri zenuen lehen liburua?

Ez naiz gogoratzen! Etxean liburu eta komiki asko genituen, nire ahizpa zaharren liburuak irakurtzen nituen: Los Hollyster eta Puck bildumak oso gustuko nituen. Gogoratzen dut "La historia interminable" asko gustatu zitzaidala.

Zer esango zenioke idazten hasi berri den pertsona bati?

Asko idatzi behar duela, eginez ikasten dela, eta inspirazioa ez dela etortzen, bila joan behar dela; horretaz aparte, asko irakurri behar duela, ikasteko.

Beste liburu bat egiteko asmoa duzu?

Asmoa badut, eta saiatzen ari naiz, baina lanarekin, familiarekin, ez da erraza denbora izatea.

Zein idazle edo liburuk inspiratu zintuen idazteko?

Ez dut uste bat bakarrik izan zenik. Eskolan eta institutuan, testuliburuetan agertzen ziren testuetatik gustuko nituen esaldiak, poemak, koaderno batean

kopiatzen nituen, idazle eta liburu
askotakoak.